

## **BULARRETIK MINTZORA EGITASMOA: HAUR LITERATURA SISTEMATIZATZEKO ESPERIENTZIA BAT**

**Tesiaren egilea:** Maialen Arnedo Gaztelurrutia

**Unibertsitatea:** Mondragon Unibertsitatea (MU)

**Saila:** Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan

**Tesi-zuzendaria:** Idurre Alonso Amezua eta Alexander Barandiaran Arteaga

**Tesiaren laburpena:**

Ikerlan hau bi zimenduren gainean eraiki da: haurra eta literatura. Ardatz horiek erdigunera ekarriz, egungo errealitateak erakusten digu euskal kulturaren transmisioak, eta horren baitan, literaturarenak, etena bizi duela, berau hizkuntza-gaitasunak lantzerantz edota obra literarioen irakurketara mugatzen baita. Ildo horretatik, ezinbesteko bilakatu da egun, eskolan, haurrari literaturarako sarbidea bermatzea, alegia, literaturaz gozatzeko eta ezagutza literarioetan aurrera egiteko testuinguru aproposak eskaintzea. Aurrez aipaturikoak agerian utzi du irakasleen prestakuntzaren beharra, eta Euskal Herrian badira bide horretan lanean diharduten edota aritu diren zenbait elkarte. Horietako bat da Galtzagorri Elkartea, zeinak, besteren artean, *Bularretik Mintzora* egitasmoa jarri zuen martxan 2008an. Sortu zen une beretik helburutzat izan du 0-8 urte bitarteko haurren irakasleei, hezitzaileei eta gurasoei haien garapenean laguntzeko haur-literaturako baliabideak eskaintzea, eta hala, haurrengan irakurketa-ohiturak sustatzea. Zabalkunde handiko egitasmoa izanik, funtsezkoa iruditzen zitzaigun halako praktikak izan ditzaketen indarguneak eta erronkak identifikatzea, horrek, besteak beste, etorkizunera begirako antzerako egitasmoak eraikitzeko aukerak zabal ditzakeelako. Horixe izan da, beraz, ikerlan honen xedea.

Helburua erdiesteko, prestakuntza-prozesu bat diseinatu eta aurrera eraman da, eta horrez gain, prozesu hori bera ikerketa-objektu izan da. Hori horrela izanik, ikerlana prestakuntza ikertuaren markoan kokatzen da.

Prestakuntza-prozesua hezkuntza arautuan kokatzen da, zehazki, Eibarko San Andres eskola hartu da aztergai, eta lehenengo pausoa izan da *Bularretik Mintzora* egitasmoak klaustroari eskainitako formazioak jasotzea. Saio horietan literatura sistematizatze gakoak eskaini zaizkie irakasleei, bai eta saioen dinamizazioarako estrategiak eta materiala proposatu ere. Bigarrenik, formazio horiek ardatz hartuta, Lehen Hezkuntzako 1. zikloko lau irakaslek literatur saioak diseinatu eta gauzatu dituzte. Hirugarrenik, irakasleek autokonfrontazio-saioak egin dituzte, alegia, haien gelaratzeen bideo-grabazioen aurrean jarrita, eta ikertzaile-prestatzaileen

laguntzarekin, ikusitakoaren gaineko gogoeta egin dute, bai eta, etorkizunera begira, hobetzekoak identifikatu ere. Azalduko pausoak hiru alditan errepikatu dira eta horrek aukera eman du irakasleen egiteko moduetan azaleraturiko garapen-aztarnak identifikatzeko.

Hainbat izan dira analitik eratorritako emaitzak, eta horietako bat izan da, irakasleek literatura sistematizatu dutela, hau da, egunero eskaini diote eskolan denbora eta espazioa poesiari eta narrazioari. Modu horretan, literatura ikasleen egunerokoaren parte bihurtu dute, bai eta ikasle guztiei literaturarako sarbidea bermatu ere. Horrez gain, lau irakasleek formazioetan jasotako dinamizaziorako gakoak gelaratu dituzte, besteak beste, literatur saioak testuinguan jarri dituzte; kontaketa ostean elkarrizketarako denbora hartu dute; eta kontatzeko zein interpretatzeko estrategiak (intonazioa zaintzea, bolumenarekin jolastea, isiluneak tartekatzea...) baliatu dituzte. Hori ez ezik, saio guztietan, kalitatezko literatur testuak erabiltzearen aldeko apustua ere egin dute.

Agerian geratu da, beraz, formakuntza ikertuak lau irakasleen egiteko moduetan eragin duela, baina zenbait erronka ere identifikatu dira. Batetik, hezkuntza literarioaren markoan kokatuz, eta irakasleen prestakuntza ardatz hartuz, azpimarratzekoa da irakasleen egiteko moduetan lagunduko duten formazio-prozesuen beharra. Era berean, ikerketak erakutsi du formazio horiek irakasleen praktika errealean oinarritzea ezinbestekoa dela. Bestetik, hezkuntza literarioaren markoari dagokionez, ikusi da funtsezkoa dela irakasleei eskolan literatura sistematizatzeko estrategiak eskaintzea, eta horrez gain, literatura modu mailakatuan lantzeko tresnak proposatzea, modu horretan testuetan eta ezagutza literarioetan sakontzeko.